



Ibarrako Lauburu taldeak hirugarren egin du

Asteburu betea izan du taldeak; Espainiako Areto Futbol Txapelketako aurre kanporaketa jokatu du eta Lauburu eguna ospatu dute // **7**

Kontzertu eta emanaldiak, Ibarrako Gazte Festetan

Ostiraletik igandera bitarteko egitaraua prestatu dute; gaztetxeko argazki zaharrak ikusi ahal izango dira igandean // **3**



Irene Caminos bike trial modalitateko txapeldunak izan zuen aurtengo festari hasiera emateko ardura. JOSU ARTUTXA

Txinparta eta zipriztin artean

XI. Bisigu eta Sagardo Festa egin dute asteburuan, Tolosan, Txinparta elkarteak antolatuta; Irene Caminos bike trialeko txapelduna omendu dute // **4**

Herritarrek Alegiako Herri Eskola izena aukeratu dute

San Juan eskolari izena aldatu diote eta aurrerantzean Alegiako Herri Eskola izango da // **2**

El Salvadorreko Segundo Montes, gertuago

Aiztondo bailararen eta El Salvadorreko komunitatearen arteko senidetzea ospatu dute Villabonan // **5**

Ane Iturria eta Hassan Ait Chaou, Zegama-Aizkorrin

Bi lasterkariak egin dituzte eskualdeko marka onenak; Iturriak laugarren egin du junior proban, eta Ait Chaouk 17. egin du // **6**


ALEGIA – Beistin Auzoa

Azken etxebizitza!



4 logela + 2 bainugela 206m2 erabilgarritik gora
315.000€ + BEZ

VILLABONA – Kale Berria 48



3 logela + 2 bainugela
205.000€ tik hasita

Etxebizitza herri erdigunean!



ALEGIAKO HERRI ESKOLA

Alegiako eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek San Juan eskolaren izena aldatzeko egin duten lanak bere emaitza eman du. Aurrerantzean, Alegiako Herri Eskola izena izango du. Urte osoko lanaren emaitza eskolako festan eman zuten eza-gutzero, larunbatean. Altxorren bila arrakastatsu batean, denen artean, ireki zuten izena zeraman pankarta. ATARIA



HERRITARRAK TXUNDITUTA

Alaitz Artola amezketarrak herrian eskaini zuen kontzertuaz gozatzeko txiki geratu zen aretoa. 40 minutuko kontzertua eskaini zuen, pianoa lagun, partiturarik gabe. Artolak jasotako animo eta txalo guztiak eskertu nahi izan zituen, eta baita, bere musika ibilbidean laguntzaile izan dituenak ere: Kontxu Altuna Amezketa irakaslea, Begoña Altuna Zumadi eskolako tutorea eta azkenik, kontserbatorioko Oskar Gerreñu eta Junkal Guerrero irakasleak. IMANOL ARTOLA 'FELIX'

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Komertziala. Landanet enpresak komertzialak behar ditu. Baldintza ezin hobeak: lan-kontratua, soldata

finkoa, komisio altuak hilerio eta formazioa enpresaren kontu. Bidali cv info@landanet.net helbidera edo deitu 943 3186 06.



Udan aspertzeko tarterik ez, Zizurkilen

Zizurkilgo Udalak prest du uztaila osorako gazteei begirako eskaintza; ekainaren 8a da izena emateko azken eguna

Eneritz Maiz Etxarri Zizurkil

Zizurkilgo Udalak Gaztezuloko udako eskaintza guztia prest du. Egunez egun ekimen ezberdinak izango dituzte 2002-2007 artean jaiotakoek. *Uda iritsi da Gazte-zulora* lelopean, gazteek, kirola, abentura, igerilekua, erreka, ... ezagutzeko aukera izango dute, uztailaren 1etik 30era.

Zizurkilgo Udalak urtero antolatu ohi duen *Oporretan euskaraz* udaleku irekien eskaintza osatzera datorrela adierazi du, Maite Amenabar zinegotziak, «17 urte arteko gazteei begira eskaintza zabalduz». Herriko kirol elkarteei ere eskerrak eman nahi izan dizkie: «Programazioan parte hartzeko eskaintzari prestutasuna adierazi diotelako, eta honela herriko kirol eskaintza gaztetxoengana gerturatzeko aukera eman digutelako, Ziotza Pilota Eskola, Danena Txirrindularitza eta Denok Danena Halterofilia elkarteek».

Ane Artutxa da Gaztezuloko hezitzailea, eta Kirol Astearekin emango dietela hasiera ekime-nei adierazi du: «Pilota, bizikleta, halterofilia eta atletismoa probatu ahal izango dituzte Zizurkilgo kirol elkarten lagun-



Ane Artutxa eta Maite Amenabar, Gaztezulon programa aurkezten. E. MAIZ

tzarekin. Eta astea borobiltzeko Kontxan padel surfa praktikatu ahal izango dute».

Hurrengo asteak abenturari lotutakoak izango direla argitu du Artutxak: «Txindokiko Itzala abentura parkera irteera egingo da, Olaberriko Karting zirkuitura eta baita Lasarteko Paintballera ere». Udako beroari aurre egiteko igerilekuetara edo errekarara ere joango dira: Hernaniko eta Asteasuko igerilekuetara eta Leitzarango errekarara. «Asteasuko igerilekua gertu dugunez, bertara bizikletaz joateko aprobetxatuko dugu».

«Gaztetxoaren artean sortuko diren harremanak sendotzeko,

berri, bi eguneko irteera bat proposatu diegu Goizuetako Zubimuxu aterpetxera. Ingurunea baliatuz ekimen ezberdinak gauzatuko ditugu», kontatu du hezitzaileak.

Izen ematea zabalik dago, eta Zizurkilgo Udaleko bulegoetan edo Gaztezulon bertan eman beharko da larunbata bitartean, eta bertan izango da eskura informazio osatua. Ekintzak aukeratzeko aukera izango dute dago-kion kuota ordainduz, baina kirol astearen kasuan, aste osorako eman beharko dute izena. Ekintza guztietan izena ematen dutenek, aldiz, 125 euroko kuota murriztua ordainduko dute.

GUTUNA

Jose Luis Longaron

Askotan entzun dut orain dela ia berrogeita hamabost urte Tolosan kultur etxe bat egiteko asmoa aurkeztu zenean, jende askok galdetzen zuela: *zer da hori eta zertarako?* Gaur egun, zaila da irudikatzen Tolosa Antonio Maria Labayen kultur etxerik gabe.

Orduan batzuei hutsala edo beharrezkoa ez zela iruditzen zitzaien hura gorpuztu, sustraitu eta ezinbestekotu dutenak, neurri handian, eraikin honetan lan egin duten irakasleak izan dira. Horietako bat, pasa den larunbatean zendu da, Jose Luis Longaron.

Ez dut pertsonalki niretzako izan denarekin luzatu nahi: la-

gun eskuzabala, argia, alaia, umoretsua, atsegina eta gizon ona. Ez da gutxi.

Kultur etxean egindako lana da, batez ere, goraipatu nahi dudana. Berak eta berarekin hasi zirenek (Iñaki Epelde, Amaia Biurrun, Arantza Munita) kultur etxeko lantokiak espazio irekiak izatea nahi izan zuten, ikasleentzako ikasteko eta topatzeko leku bat sortzea, ahalik eta hesirik gutxien izango zituena, eta zinez lortu zutela esan behar da.

Ehunka dira Jose Luis Longaronen ikasgelatik pasa direnak, eta gehienak nirekin ados egongo direla uste dut: berarekin lortu zuten deskubritzea barruan zeramaten pintatzeko gaitasuna, baina, honetaz aparte, bere hurbiltasunak eta gizatasunak egunero zerbait ikas daitekeela

erakutsi zien, askotan konplikatu edo urruna iruditzen zaiguna gure eskura egon daitekeela gauzak patxadan eta umorez hartzen baldin badira.

Jose Luisek erakutsi zigun, ikasleei eta ikasle izan ez ginen bere lagunoi, musika isil batetik, edo zerbeza batzuen inguruko solasaldi lasai batetik gehiago aurrera genezakeela ponpaz betetako akademizismo eta hitz handietatik baino. Errekonozimendu eta zurikeriaz aparte bizi nahi izan zuen, eta horrela joan zaigu, azken arte lagun guztiei «laster arte» irribarretsu eta diskretu batekin diosala eginez.

Hitz hauek ere diskretuak izatea nahiko nuke, errekkonozimendu txiki eta justu bat. Adio, Joselu.

Jokin Ansorena Miner Tolosa

Ostiraletik igandera ospatuko dituzte Ibarako Gazte Festak

Ostiralean 18:00etan lehertuko da txupinazoa eta sagardo dastatzearekin jarraituko du festak; igandean, gaztetxeko argazki zaharren erakusketa jarriko dute, gaztetxean bertan

Irati Salzar Artola Ibarra

Hiru egun festan pasatzeko moduko egitaraua osatu dute Ibarako Gazte Asanbladako kideek. Ostiralean hasiko dituzte Gazte Festak. 18:00etan jaurtiko dute txupinazoa eta sagardo dastatzearen ondoren, iluntzean, gazte afaria egingo dute. Afarirako txartelak Zubiaurre eta Atari tabernetan eskura daitezke eta gaur izango da tiketak erosteko azken eguna. Ikasle eta langabetuek 8 euroan erosi beharko dute, eta langileek 10 euroan.

Larunbata ere festan pasa ondoren, iganderako ekitaldi des-



Iazko gazte festetan ere Alurrek emanaldia eskaini zuen. J. MIRANDA

berdin bat prestatu dutela azaldu dute antolatzaileek: «Zerbait berezia antolatu nahi genuen, eta azken 25 urteetan gaztetxean

jasotako argazkiekin erakusketa txiki bat jarriko dugu, eta gaztetxean bertan pintxo-potea ere egingo dugu».

EGITARAUA

Ekainak 7, ostirala

18:00. Txupinazoa.

Jarraian. Sagardo dastatzea, Bonberenea txarangak alaituta.

21:00. Afariplazan.

22:30. Alurren dantza emanaldia.

23:30. Kontzertuak. Plazan: The

Bobby's, Galtzagorriak eta Boot Boys taldeak. Gaztetxean: Eztena

eta Estarlus taldeak, eta DJ Elepunto.

Ekainak 8, larunbata

11:00. Jolasak Gaztezuloren eskutik.

17:00. Alurren emanaldia.

Ondoren. Txokolate jatea eta tortilla, Sendi Ekintzaren partetik.

18:30. Burrumba elektrotxaranga.

21:00. Barrikotea.

22:30. Kontzertuak. Plazan: Rodeo, Ziakhus, Streetwise eta Kontuz! erromeriya. Gaztetxean: DJ Jotatxo.

Ekainak 9, igandea

18:00. Gaztetxeko argazki zaharren erakusketa eta pintxo-potea.

Jarraian kontzertu akustikoa.



LANDATU DITUZTE PIPERRAK IBARRAN

Ibarako Uzturpe Ikastolako DBH3ko 40 ikasle inguruk eta Gureak-eko lau erabiltzailek piperrak landatu zituzten ostiralean, Molpoidon. 789 taldekoek gonbidatuta, piperrari buruzko informazioa jaso zuten: nondik datorren, zein motatakoak dauden... Ibarako piperrarekin egingako piper hautsa dastatu eta txistorra janez hamaiketako ere egin zuten. I. URDALLETA

Bihar batzar informatiboa egingo dute Ibaran

Irailaren 26an hasiko den makro epaiketa dela eta, batzar informatiboa egingo dute, bihar, 19:00etan, Ibarako kultur etxean

I. Salzar Artola Ibarra

Irailaren 26an 47 herritarren aurkako makro epaiketa hastea denez, eta eskualdeko bi lagun, Jon Mintegiaga *Minde* eta Jesus Mari Aldunberri *Kudu*, epaituko dituztenez, haien senide eta gertukoek batzar informatiboa egingo dute, bihar, 19:00etan, Ibarako kultur etxean. Batzarrean, epaiketaren nondik norakoak zehatzago azalduko dituzte.

Fiskaltzak 15 urteko kartzela zigorra eskatu du Minderentzat,

eta 13 urte eta erdi Kudurentzat. Herrira mugimenduko kide iza-teagatik «ETAren espetze fronte» osatzea egozten zaie.

Minderen senide, lagun eta gertukoek, «kezka handiz» jaso dute berria eta eskariaren tamaina ikusita, «gaia herritarrekin eta eragileekin partekatze beharra» sentitu dutela diote. Ibarako auzi huts bat baino, eskualdean eta Euskal Herrian eragina izango duen auzi bat dela uste dute, beraz, «Tolosaldeko herritarrak dinamiketan parte hartzera» deitu dituzte.

Palentziako espetxera mugitu dute Goikoetxea

Erredakzioa

Joan den astean espetxez aldatu zuten Andoni Goikoetxea gazteluarra. Madrilgo Soto Del Realen zegoen eta Palentziako La Moralejara lekualdatu dute. Pasa den asteburuan, senideek espetze horretan egin zioten lehen bisita.

Pasa den astera arte, 400 kilometroko ibilbidea egin behar izaten zuten Goikoetxeari bisita egin nahi zietenek, Soto Del Rea-

lera iristeko; orain, 280 kilometro dituzte aurretik.

APIRILETIK, PRESO

Apirilaren 24an atxilotu zuen Guardia Zibilak gazteluarra, etxetik lanera zihoala, Ibarako Apatta Industrialdearen ondoko biribilgunean. Espetxean dagoen Aitor Esnaolaren kide izatea, eta ETA erakundearen hainbat zuloren ardura izatea leporatuta, zazpi urteko espetze zigorra ari da betetzen Goikoetxea.

Udalekuetan lan egiteko lan poltsa zabaldu dute Gaztelun

GAZTELU // Udalekuetan begirale aritzeko lan poltsa zabaldu dute. Ekainaren 13ra bitarte eman ahal da izena, udalean bertan edota udala@gaztelu.eus helbidean. Honakoak hartuko dira kontuan: begirale titulua, euskara ziurtagiria, haurrekin harremana duten ikasketak edo ikas-taroak, eta lan esperientzia.

Ibarako koroaren kontzertua, ostiralean, Ibarako kultur etxean

IBARRA // Ostiral arratsaldean Ibarako koroan abesten dutenek, kontzertua eskainiko dute herritarren aurrean, 19:00etatik aurrera. Ibarako kultur etxeko areto nagusian egingo dute emanaldia. Ikasturtean zehar prestatu dituzten abesti eta kantak jendaurrean erakustea izango dute helburu.

Bisigu eta Sagardo Festa, giro ederrean

Zerkausian ospatu ziren asteburuko hiru otorduak; irekiera ekitaldian, Irene Caminos omendu zuten antolatzaileek



Josu Artutxa Dorronsoro

Txinparta elkarteak antolatuta-ko XI. Bisigu eta Sagardo Festaren irekiera ekitaldia larunbatean egin bazuten ere, ostiralean eman zioten hasiera, Txinparta elkartearen egindako uztartze afariarekin, giro onean. «Edateaz gain, sagardoari bestelako etekin batzuk ateratzen zaizkiola ere ikasi genuen», adierazi zuen Jon Ormazabal, bertako bazkideak. Larunbatean, berriz, irekiera ekitaldiaren txanda izan zen.

Aurten, Irene Caminos bike trial modalitateko txapeldunak moztu zuen zinta, Tolosaren ize-na mundu guztian zehar zabal-tzeagatik. Txinpartako kideek, oroigarri bat eta lore sorta bat eman dizkiote. Caminosek ere bere argazki bat oparitu zien antolatzaileei. Iaz ere gonbidatu zuten, baina proba bat medio, ezin izan zuen bertaratu. «Kanpoan egon ondoren, herrira itzultzean, tolosarren eskutik jasotzen du-dan berotasuna eskertzekoa da».

Festa ofizialki inauguratu ondoren, sagardo kopekin topa egin zuten, antolatzaileek eta udal ordezkariak. Caminosek, inoiz bisigua jan gabea zela eta, «badut dastatzeko gogo», esan zuen, bazkal aurretik. Hain justu, bisigu menua dastatzeko aukera izan da Zerkausian. Asteburu osoan, 600 bat lagun bildu ditu Zerkausiak, Katxina eta Xixario errete-gietako parrilariak Orio estilora prestatutako beste hainbeste bisiguz gozatzeko.

SAGARDOARI ERE TXOKOA

Zerkausia, baina, ez da bisiguz soilik elikatu. Jantokiaz gain, Sagardoaren Txokoa ere zabalik izan da asteburu osoan, pintxoak jateko aukerarekin. Lehen aldiz, gainera, eskualdeko sagardo ezberdinak dastatzeko aukera izan da: Goikoetxea (Lizartza), Zabala (Aduna), Aburuza (Aduna), Sarasola (Asteasu), Isastegi (Tolosa), Eguzkitza (Tolosa), Begiristain (Ikaztegieta) eta Zalbide (Abaltzisketa) sagardotegietako ekoizpenak, hain zuzen. Larunbatean, Aitor Mendiluze eta Haritz Mujika bertsolarien saioa entzuteko aukera izan zen bertan.



TRIKITI DOINUAK

Tolosaldeko Trikiti elkarteak antolatuta, eskualdeko trikiti zaletasuna areagotu asmoz, 30 bat trikitilarik kalejira egin zuten, igandean, Tolosan. Fandango eta arin-arinak jo zituzten, eta tartean izan zen dantzatzera animatu zenik ere. Kalejira amaituta, Benta Aldea jatetxean bazkaldu zuten. I. URDALLETA



EKOSFERAREN AZKEN UHINAK

9 urte eta gero, Euskadi Irratiko Ekosfera saioaren amaiera festa egin zuten, Tolosako kultur etxean. Bertan, ingurumenari eta gogoetari buruzko hitzaldiak eskaini zituzten kolaboratzaileak, zuzeneko musikaz lagunduta. Aurrez, bisita gidatuak egin zituzten, Alde Zaharrean eta Elosegi parkean. J.A.



GARBINE UBEDA, SORMENETIK

Sormenetik ekimenaren barruan, aurtengo lehen elkarrizketatua izan zen Garbiñe Ubeda ibartarra. Izandako bilakaeraz, azken lanez eta euskal idazleen elkarteak dituen erronkez aritu zen, ordubeteko saioan. Idazle eta kazetariak, «sortzaileek ikusgarritasun handiagoa merezi dutela» esan zuen. J.A.

BERRIA TALDEAK MARKETIN ESTRATEGIA DIGITALAREN ARDURADUNA BEHAR DU

(Erref:19-MD):

Pertsona hau BERRIA TALDEAREN marketin estrategia digitala diseinatu eta kudeatzeaz arduratuko da, eta estrategia horren jarraipenaz eta neurketaz, Talde Estrategikoan parte hartuz eta Taldearen helburuak lortzeko erabakietan eraginez. Estrategia eta negozio ikuspuntua duen pertsona baten bila gabiltza, sormena eta ekimena dituen, antolatua, eta taldea dinamizatzeko gaitasuna duena.

Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako ikasketak: Administrazio eta Enpresa Zuzendaritza, Kazetaritza, Publizitatea eta Harreman Publikoak, Marketina edo antzeko ikasketak.
- Marketin digitaleko espezializazioa: Social media marketinaren ezagutza, Email emarketinarena, eta Web posizionamenduarena (SEO-SEM).
- Analitika eta datuen neurketarako tresnen ezagutza.
- Big Data ikasketak eta ezagutza aintzat hartuko dira, eta horien aplikazioan eskarmentua izatea lehenetsiko da.
- Euskaraz ondo jakin (gutxienez EGA maila) eta ondo komunikatzea.
- Aintzat hartuko da aurrez marketin estrategia digitalak diseinatzeko eta garatzeko lanetan aritu izana.

Eskaintzen da:

- Berehala lanean hasia.
- Lanaldi osoko lan kontratu iraunkorra.
- Lantokia Andoainean.

Interesa duenak bidali curriculum, **2019ko ekainaren 17a baino lehen**, '19-MD' erreferentzia zehaztuz, helbide honetara: gizabaliabideak@berriataldea.eus



KIROLARI LOTUTAKO ELKARTEAREN JAIA

Villabonako Behar Zana elkarteak bere 73. festa ospatu zuen asteburuan. Larunbatean, besteak beste, haurren arteko pilota txapelketaren finalak eta xake torneoak jokatu ziren. Arratsaldean, pilota jaialdia ospatu zen, eta bazkideen afariaren ondoren, danborrada. Igandean, berriez, dianaren eta errebote partidaren ondoren, bazkaria egin zuten elkarteak. I.G.L.



ERROMERIAK TINKO DARRAI

Beste urte batez, Erromeria Eguna ospatu zuten, larunbatean, Lizartzan. Goizean, dantzariak eta herritarrek hartu zuten plaza, dantza erakustaldiarekin. Bazkaltzeko 150 haur eta heldu inguru elkartu ziren plaza ondoko belardian, eta erromeriarekin eman zioten jarraipena ekitaldiei. I. GARCIA LANDA

Senidetzeak urte luzez iraun dezan

El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen eta Aiztondo bailararen arteko anaitzeak, 26 urte bete ditu aurten. Larunbatean, Senidetze Eguna ospatu zuten.

Imanol Garcia Landa Villabona

El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen ordezkari gisa Pedrina Rivera, Walter Alexander Claros eta Esmeralda Flores izan ziren, asteburuan. Larunbatean, ekitaldi instituzionalaren aurretik, agurra dantzatu zieten bai gonbidatuei eta baita Aiztondoko udaletako ordezkariari ere. Ondoren, Villabonako udaletxeko bilkura aretoan, Maite Izagirre alkateak esan zuenez, «askatasun guztiak unibertsalak diren moduan, elkartasunak ere unibertsaltasun ezaugarri hori izan behar du». Bestalde, Segundo Montes komunitatearekin Aiztondo bailarak duen konpromiso solidarioa berresten dutela gaineratu zuen. Bere aldetik, Segundo Montes komunitateko kideek jasotako babesa eskertu zuten, baita «mundu hobe bat» sortzeko nahia azaldu ere. Euskal Fondoa elkarteak kide den Mikel Arrastoak gogora ekarri zuen 26 urte bete direla bi komunitateak elkarrekin proiektuak lantzen hasi zirela, eta espero dutela, gutxienez, beste horrenbeste urtetan jarraitzea. Amaieran, elkarri opariak eman zizkieten, eta gero, herritarrekin batera egindako ekitaldiaren txanda izan zen.



Udaletxean egin zuten ekitaldi instituzionala, bi bailaretako ordezkariak. I.G.L.



AUZO ELKARTZEKO JAIA

Zizurkilgo Ugare auzoan Euskal Jaia ospatu zuten, larunbatean, lehen aldiz. Iaz egin zuten auzoko festa, auzo elkarteak antolatuta, eta aurten jarraipena eman diote Euskal Jaia ize-na jarriz. Orain gutxi sortu den Ugare auzoko elkartearen asmoa auzokideen artean giroa sortzea da. Buruhandiek eta haur jolasek eman zieten hasiera egun osoko jaiari. I. GARCIA LANDA

TOLOSA
Hipermerkatua

EROSKI
zurekin

lurre auzoa, z/g
Tel. 943 67 09 00

ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 WWW.ISASTEGI.COM



REALERA ITZULIKO DA

Realak ohar bidez jakinarazi duenez, Xabi Alonso ibartarrak bigarren taldearen ardura hartuko du, Bigarren B Mailan. Azken denboraldian Real Madrid taldeko infantilak entrenatzen aritu da. Alonso Realeko jokalaria izan zen, eta ondoren Liverpool, Real Madrid eta Bayer Munich taldeetan jokatu zuen. Futbolari izateari utzi ondoren, entrenatzaile titulua atera zuen. J. ARTUTXA



ESKALATZAILE GAZTEAK

Eskolarteko I. Gipuzkoako Boulder Ligarako puntuagarria izan da Tolosako Usabal kiroldegian jokaturako proba, eta bertan erabaki da behin betiko sailkapena ere: Eneritz Perez izan da ligako irabazle kadeteetan, Irati Guenetxea infantiletan eta Manex Iñurrategi alebinetan. I. URDALLETA

Artolak sufrituta lortu du final-zortzirenak jokatzeko txartela

Erredakzioa Alegia

Lau eta erdiko San Fermin Txapelketaren kanporaketa jokatu zuen larunbatean Iñaki Artola alegiarrak, Agirreren aurka Labriten, eta 22-19 nagusitu zen. Akatsek erabaki zuten azkenean partida; eta arlo horretan irabazlea Asier Agirre izan zen. Iruindarrak 15 kale egin zituen bitartean, Artola 7an geratu zen.

Markagailuan hasieratik nagusi izan zen alegiarrak. 14-6koarekin partida bideraturik zuela zirudien, baina Agirre ez zego-

en amore emateko eta 20-19 jartzeari lortu zuen. Kaleak kale, bi pilotariak erremate ederrak egin zituzten. Artolak egindakoen zakuan sei tanto eta sake bat sartu zituen. Agirrek bi sake sartu zizkion alegiarrari, 10 tanto egiteaz gain.

Garaipen horrekin sanferminetako txapelketaren final-zortzirenetan sartu da alegiarrak. Bere hurrengo aurkaria ez da edonor izango: buruz buruko txapelduna edo txapeldunordea izango dena. Ekainaren 14an jokatu du Urrutikoetxearen aurka, Arrigorriagan.

Iturria eta Ait Chaou, nabarmenenak Zegama-Aizkorrin

Ane Iturria laugarren izan da junior proban; Hassan Ait Chaou 17. amaitu du nagusietan

Erredakzioa

Zegama-Aizkorri mendi maratokia herenegun jokatu zen. Eskualdeko korrikalariak bertan ibili ziren, eta emaitzei begiratu, Ane Iturria eta Hassan Ait Chaou nabarmendu ziren. Tolo-sarrak junior lasterketa laugarren amaitu zuen. Azken bi urtetan Iturriak irabazi du 16-18 urte artekoen lasterketa, 10,4 kilometroko distantzian. Aurtengoan postu hori Laia Gonfaus kataluniarak lortu zuen, 57 minutu eta 50 segundoko markarekin. Tolo-sar gaztearen denbora 1.03.20koa izan zen. Hala eta guztiz ere, tartean erorikoa izan zuen Iturriak eta hori ere kontuan hartzekoa da. 2017an 58.46ko marka lortu zuen tolosarrak; 2018an, 1.00.22koa.

Nagusien gizonezkoen lasterketan Hassan Ait Chaou izan zen eskualdeko azkarrena, 17. postuan. Billabonatarra bigarren euskalduna izan zen helmugan, hamargarren amaitu zuen Ander Iñarraren atzetik. Mendi maratokia amaitzeko 4 ordu 18 minutu eta 23 segundo behar izan zituen Ait Chaouk. Irabazleak, bederatzigarren garaipena lortu duen Kilian Jornet kataluniarak, 3.52.47ko marka egin zuen. Emakumezkoetan, Sarah Ugarte Tolosan bizi den donostiarrak hamalagarren postuan bukatu zuen, 5.18.42ko denborarekin. Irabazlea Eli Anne Dvergssdal izan zen, 4.36.06ko denborarekin. Eskualdeko beste hainbat ordezkariaren postuak aipatzekotan, Goar Lopetegi ibartarraren 81.ena eta Ibai Madina berrobitarraren 83.a aipatu behar dira.

BEROA, PROTAGONISTA

Denboraldi honetan hainbat proba irabazi dituen Iñaki Olano altzotarrari ez zitzaion nahi bezala atera lasterketa. «Beroa aurreikusten zen, eta pixka bat beldurtuta geunden horrekin», esan du Olanok. «Laugarren kilometrorra-



Hassan Ait Chaou, Sancti Spirituko malda igotzen. JOSU IÑIGO/GOIERRIKO HITZA



Ane Iturria, 1zenbakiarekin, probaren hasieran. ARKAITZ APALATEGI/GOIERRIKO HITZA

ko hasi nintzen tripak gaizki sentitzen. Eta hori ez zen normala, ez zen beroaren kontua». Zortzigarren kilometroan zerbait jan zuen, baina dena bota zuen, eta gorputzak ez zion ondo onartzen hortik aurrera jaten zuena. Azkenean 5 ordu eta 50 minutu inguru egin zituen mendi maratokia bukatzeko. «Aizkorrin kendu nituen postua eta denbora egitea burutik, eta amaitzea izan zen nire helburua. Azken hamabost kilometroak oinez egin nituen».

Berrehun korrikalari inguruk utzi zuten proba, baina Jon Zubillaga berastegiarrak ez zen izan horietako bat. Zegama-Aizkorriko edizio guztiak egin ditu eta aurtengoa zen hemezortzigarrena bukatzea ere lortu zuen. «Ederki kostata izan da aurtengoa», esan du Zubillagak. «Batez ere, Sancti Spiritutik aurrerako bide zati batean dezente sufritu genuen, baina azkenean bukatzea lortu genuen». 7 ordu eta 7 minutu inguru

behar izan zituen bukatzeko. «Bost ordu eta erdi inguru ibiltzen naiz, baina aurrean denbora joan zitzaion erlojuari».

Beroak bere eragina izango zuela dio Zubillagak, baina hori ez zela arrazoi bakarra ohiko denbora ez egiteko: «Gorputzaldia ez nuen hoberenean. Egun guztiak ez dira berdinak izaten». Lasterketan erretiratzeko asmorik ez zuela izan dio Zubillagak: «Gehiena sufritu dudana orain hiru urte izan zen, eguraldi txarrenekin. Orduan bai pasa zitzaidala burutik erretiratzeari. Baina aurrean ez; lasaitu, mantsotu eta errekupe-tzen saiatu nintzen. Ohartu nintzen sei edo zazpi ordu izango zirela, baina bukatu nahi nuen behintzat». Asmoa du berastegiarrak behintzat 20. parte hartzetara iristearena. «Pasa zitzaidan burutik, lasterketa bukatu eta gero, hemezortzi parte hartzetan uztea, baina badaukat erronka nire buruarekin 20.era iristekoa».



ETXEKOAK TXAPELDUN

V. Manu Muriel Oroimenezko futbol torneoan, Billabona izan da txapelduna, finalean Mariño taldeari penaltietan irabazita. Billabona FKEk antolatuta, guztira 200 umek parte hartu zuten torneoan, eta antolakuntzan 60 pertsona inguru egon ziren lanean. BILLABONA FKE



PARTE HARTZE HANDIENA

Abraham Olano Zikloturista Martxan 450 txirrindularik baino gehiagok hartu zuten parte, inoizko kopururik handienak. Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta, bi ibilbide izan zituzten aukeran: 94 kilometroko laburra eta 157ko luzea. Usabal kiroldegian izan zuten hasiera zein bukaera. I. URDALLETA

FC Barcelona sailkatu da Ibarra, eta Lauburuk hirugarren egin du

Espainiako Areto Futbol Txapelketako aurre kanporaketa jokatu da asteburuan, Belabietan

Asier Imaz Ibarra

Lau talde postu baten bila. Belabietan Espainiako Txapelketaren aurre kanporaketa jokatu da asteburuan, kadete mailan. Larunbatean eta igandean izan ziren partidak eta etxeko taldeak, Lauburu Ibarra, hirugarren amaitu zuen. FC Barcelona izan

zen azken faserako txartela lortu zuena, jokaturako partida guztiak irabazita.

Lauburu KE Ibarra kadeteek denboraldi handi baten ondoren Espainiako Txapelketarako txartela lortu zuten. Aurre kanporaketa etxera ekarri zuten, gainera. Bi egunetan banatu zuten ligaxka, eta lehen jardunaldia larunbatean jokatu zen. Futbol Emotion Sala 10 taldea izan zen Lauburukoen lehen aurkaria. Partida 3-2 amaitu zen kanpokoan alde. Bigarren partida penaltietan irabazi zuten ibartarrek, Ribera De Navarraren aurka.

Arauzko denbora banako berdinketarekin amaitu zen eta penaltietan 2-0 nagusitu ziren Lauburukoak. Sailkapen nagusirako, ordea, puntu bakarreko partida izan zen. Igandean, FC Barcelonaren aurkakoa zuten ibartarrek. Kanpokoak nagusi izan ziren eta 1-14koarekin bukatu zen norgehiagoka.

Txapelketarekin batera Lauburu Eguna ospatu zuten larunbatean, kadete taldeari animatzeaz gain, klubeko jokalariei, guraso eta kideek euren eguna ospatzeko eta denboraldiari amaiera emateko.



Lauburu Ibarra kadete mailako taldea, asteburuan, Belabietan. LAUBURU IBARRA



Lauburu Egunean bazkaria egin zuten herriko plazako aterpean. J. ARTUTXA

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Aitor Olano Jauregi

Gure Aitor laguna,
gertu zeundena, urruna,
Berriz helduko da eguna,
denok bat egingo duguna

Zure Lagunak

IBARRA, 2019ko ekainaren 4a



Aitor Olano
Jauregi



Joan zara, baina gure artean izango
zaitugu beti.

79ko uzta

IBARRA, 2019ko ekainaren 4a



ASTEARTEA, 2019KO EKAINAK 4
Argitaratzailea:
 Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
 villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
 anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
 alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
 galtzaundi, Txolarrre, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak

BABESTUTAKO EDUKIA

Teleadin, teknologia adindunen eskura

Tolosaldea Lanbide Heziketa Ikastetxe Integratuak eta **Inmakulada Lanbide Heziketa Ikastolak** elkarrekin aurrera daramaten proiektu berritzailea da Teleadin.

Bakarrik bizi diren adindunei autonomia gehiago izaten laguntzeko, eta hirugarren adinekoen edota menpekotasuna duten pertsonen etxeko autonomia areagotzeko eskaintzen den zerbitzua da.

tzeko aukerak areagotu nahi dira.

Gipuzkoako Foru Aldundia-ren ekimen zabalago baten barruan kokatzen da Teleadin zerbitzua. Izan ere, populazioaren zahartzearen erronkari erantzuna emateko Adinberri programa sortu du Foru Aldundiak, zahartze osasuntsu bat sustatu eta hirugarren adineko kolektiboari arreta integrala eskaintzeko.



BIZI KALITATEA HOBETZEKO

Hirugarren adinekoen edota menpekotasuna duten pertsonen eta haien zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzeko helburua duen Teleadin proiektua abiarazi du **Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastolak**.

Autonomia denboran ahalik eta gehien mantenduz, pertsonak bere etxean bizitzen jarrai-

BIDEO BIDEZKO URRUNEKO TELELAGUNTZA

Tolosan martxan jarri duten proiektuaren berrikuntzetako bat da bideo bidezko urruneko telelaguntza zerbitzua izatea.

Zerbitzu katalogo anitz bat sortu eta Pertsonan Oinarrituriko Plan (POP) bat osatzeko erabiliko da.

Proiektuaren balio erantsia,

ordea, ikasleek aurrez aurreko zerbitzuak eskaintzen dituztenean sortuko den belaunaldien arteko harremana da. Proiektuaren amaieran, gainera, esperientzia pilotu bat jarriko da martxan eta etorkizuneko beharrik antzemateko ikerketa bat ere egingo da.

Proiektuari osotasunean

erantzuna eman ahal izateko, Tolosako Inmakulada Lanbide ikastolak beste ikastetxe eta enprekin osatu du taldea.

Horiek horrela, Tolosaldea LHII izango da urrutiko telelaguntza ahalbidetzeko esperientzia pilotuko etxearren egokitzapen teknikoaren arduraduna. Eta bertan parte hartzen dute

Instalazio Termiko eta Fluido-dunak Mantentzeko zikloko Miel Mari Imaz eta Mikel Arregi irakasleek, eta Automatizazio-ko eta Robotika Industrialeko zikloko Koldo Irazuk.

Oraingoan dudarik gabe garen industria gizartearen ongizatearen zerbitzuan jartzea izan da helburua.

Tolosaldea
 Lanbide Heziketa Institutua

Ekainaren 3tik 14ra

AURRE MATRIKULA

eskaintza guztia **EUSKARAZ**

LAN ETORKIZUNERAKO LEHEN URRATSAK

Lan politza ETHAZ kompetentziak DUALIKASTN ErasmusKTEleaniztasuna

ERDI MAILA

- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA (ELEANITZA)
- MEKANIZAZIOA (ELEANITZA)
- MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK (ELEANITZA)
- INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOAK (ELEANITZA)
- MERKATARITZA JARDUERAK

GOI MAILA

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK (ELEANITZA)
- AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- SAREKO INFORMATIKA-SISTEMEN ADMINISTRAZIOA (ELEANITZA)
- FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA (ELEANITZA ETA ESKAINTZA PARTZIALA)
- ERAIKUNTZA METALIKOAK
- INSTALAZIO TERMIKOAK ETA FLUIDODUNEN MANTENTZEA
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA (ELEANITZA)

Tolosaldea
 Lanbide Heziketa Institutua

Santa Luzia 17 - Tolosa
943 65 11 47
 www.tolosaldea.com

ADI, lege aldaketa: aurrematrikula egitea beharrezkoa da matrikulatu ahal izateko!

https://www.facebook.com/tolosaldea
 https://twitter.com/TolosaldeaLH
 https://www.youtube.com/TolosaldeaLH